

WALT WHITMAN
BELAR-HOSTOAK
 (“Eskaintzak” ; “Paumanok-etik abiatu
nintzenean”)

© Marjinalia Bilduma
Itzulpena: X. Galarreta
1999. urtea (abuztua)
Lege-Gordailua: SS-894/99

ZATOZ, ESAN ZUEN NIRE ARIMAK,
IDATZ DITZAGUN NEURTITZAK NIRE GORPUTZERAKO (BAKAR BAIKARA),
HORRELA, HERIOTZAREN OSTEAN IKUSTEZIN ITZULTZEN BANAIZ,
EDOTA ASKOZ, ASKOZ BERANDUAGO, BESTE ESFERA BATZUETAN,
NIRE KANTUAK BERRIRO ZUZENTZEN BADITUT LAGUN-TALDE BATERANTZ,
(LURRAREKIN, ZUHAITZEKIN, HAIZEAREKIN, OLATU BIZIEKIN HORIEK DENAK EGOKITUZ),
ALAITASUN-IRRIÑO BAT BETI GORDE AHAL IZAN DEZADAN,
NIRE BERTSOAK ETERNALKI EZAGUTUKO DITUT; ZEREN, HEMEN ETA ORAIN,
ARIMAREN ETA GORPUTZAREN IZENEAN IZENPETZEN BAITUT, ETA NIRE IZENA JARTZEN
DUT HORIEN AURREAN.

Walt Whitman

ESKAINTZAK

NI-ARI KANTATZEN DIOT

Ni-ari kantatzen diot: pertsona simple, bananduari.
Hala ere, hitz demokratikoa ahoskatzen dut, Masa-hitza.

Burutik oinetarainoko fisiologiari, kantatzen diot nik,
Ez fisonomia bakartua ez burmuin bakartua dira Musaren duin;
Diot, ezen, Gorputz osoa duinagoa dela.
Emakumeari zein Gizonari orobat, kantatzen diet nik.
Grinaz itzela den Bizitzan —malgutasunez, indarrez,
Pozkarioz—, lege dibinoen arabera sortzen den ekintzarik askeenaren omenez.
Gaurko Gizonari kantatzen diot.

ISILEAN GOGOETAN ARI NINTZELA

Isilean gogoetan ari nintzela,
Nire olerkiak konpontzen, juzgatzen, berandutzen,
Badaezpadako itxurako Mamu bat altxatu zen nire aurrean,
Izugarria bere edertasunean, bere mardultasunean, bere indarrean
—Nazio zaharretako olerkarien jeinua—;
Eta sugarrak bezalako begiradak jaurtiz,
Olerki hilezin asko hatzaz erakutsiz,
Eta ahots mehatxukorraz, *Zein kantu da hori?*, esan zuen,
Ez al dakizu hilezinek diren koblakarietzat gai bakarra dagoela?
Eta gai hori Gerra da, guduen adurra,
Soldadu perfektuen sorrera.

Hala biz, erantzun nuen.
Neuk ere, Itzal arranditsu hori, gerrari kantatzen diot —besteak baino luzeagoa eta
handiagoa den gerra bati gainera—;
Gudua nire liburuan dago eta gora-behera asko ditu: ihesak orain, aurrerakadak
jarraian eta atzerakadak azkenik, garaipena beti gerorako utzita, erabaki gabe
(Hala ere, gauza segurutzat —edota ia segurutzat— jotzen dut). Gudalekua
mundua bera da.
Hil edo bizi, Gorputzaren eta betiereko Arimaren alde,
Azkenik heldu naiz; borroken himnoa abesten dut;
Eta, batez ere, soldadu ausarten jaiotza aldarrikatzen dut.

OZEANOAN, ITSASONTZIETAN

Ozeanoan, itsasontzietan,
Mugarik gabeko urdin-kolorea alde guztietan zehar hedatzen denean,
Haize txistukariekin eta uhinen musikarekin —uhin erraldoi, egonarri gutxikoekin—,
Edo itsasontzi bakartiren batek ur-azalean dirauen artean, itsas dentsitatetik hurbil,
Bertan poz-pozik, fedez beterik, oihal zuriak zabalik,
Eguneko dizdiraren eta aparraren erdian eterra zeharkatzen dudanean,
edo gaueko izar kontagaitzen azpian,
Itsasgizon gazte eta zaharrek kasualitatez irakurriko naute —lehorraren oroitzapen
huts—,

Begikotasun handiz, azken batean.

*Hona hemen gure pentsamenduak, nabigatzaile-pentsamenduak,
Hemen lurra —lehorra— ez da agertzen den bakarra, esan ahal izango dute,
Hemen Zeruak ganga bat osatzen du, eta ontziaren bizkarra sentitzen genuen geure
oinzolen azpian, uhintzen,
Taupada luzea sentitu genuen, mugimendu amaigabearen joan-etorria,
Misterio ikusezinaren azentuak, mundu gazikararen aieru laiso eta zabalak, erraz
jariotzen diren silabak,
Lurrina, soken marraska leuna, erritmo malenkoniatsua,
Perspektiba mugagabea eta zeruertz urrun eta zehaztugabea, hori guztiori dago hemen,
Eta halakoxea da Ozeanoaren olerkia.*

Orduan ez egin zalantzarik, o liburu horrek, bete ezazu zeure patua,
Zu ez zara soil-soilik lehorreko oroitzapena,
Zu ere, itsasontzi bakartiaren pareko, eterra zeharkatzen duzu auskalo zein
norabiderekin, eta, hala ere, fedez beteta zaude beti.
Itsasoratzen diren ontzi guztien kide hori, itsasora zaitez!
Eramaiezu nire maitasun ezkutua (marinel maiteok, zuentzat sartzen dut hemen, orri
hauetan);
Egizu aurrera, nire liburutxo honek! Zabal itzazu zeure oihal zuriak, o nire txalupa txiki
honek, uhin harroputzen gainetik,
Kanta ezazu, abia zaitez itsasorantz, eramazazu urdintasun amaigabearen zehar, itsaso
guztietara,
Nire kanta hau marinelentzat eta beren itsasontzi guztientzat.

ATZERRIKO HERRIEI

Jakin dudanez, Mundu Berriaren enigma aurkitzen lagunduko dizuen zerbait eskatu
duzue,
Amerika eta bere demokrazia kementsua zehazteko;
Hori dela eta, nire olerkiak bidaltzen dizkizuet, bila ari zaretena bertan beha dezazuen.

HISTORIALARI BATI

Zuk iragandakoa ospatzen duzu:
Kanpoaldea, arrazen gainetikoa, erakutsi zaizun bizitza esploratu dituzu.
Politikaren, gizartearen, legegileen edota apaizen produktutzat jo duzu gizona;
Nik, Aleghanio-etako biztanle honek, berez den bezala eta dituen eskubideak kontuan
hartuta,
Oso gutxitan erakusten den bizitzaren pultsoari eutsiz,
gizonari berez doakion harrotasun handia
—Nortasunaren abeslari—, oraindik ez den hura zirriborratuz,
Nigandik kanpo jaurkitzen dut egunen bateko historia.

ZURI, KAUSA ZAHAR HORRI

Zuri, kausa zahar horri!
Kausa on, grinatsu, alderaezina,
Ideia gozo, krudel, zuhurra,

Adin, arraza, herrietan zehar hilezina,
Gerra triste eta arrotz baten buruan, zeuk ekindako gerra aparta,
(Denboran zehar izan diren gerra guztiak benetan zeuk hasitakoak izan direla uste dut,
eta hala izango da beti eta sekulako),
Kantu hauek zuretzat, zure ibilaldi eternoarentzat dira.

(Gerra hau, o soldaduok, berez soilik hasitakoa ez-baizik
zerbait gehixeago, askoz gehiago izan zen, zain baitzegoen zutik, atzean, liburu honetan
aurrera noiz egingo.)

Lurbiren lurbira!
Hasiera zalapartatsua! arreta handiz kontserbaturiko iturburu ezkutua! erdigunea!
Biraka ari da gerra zure ideia-eremuan,
Zure kausa-jolas temati eta koleratsu guztiarekin
(milaka urtetan hiru aldiz gertatuko diren ondorio zabalekin).
Olerki hauek, zuretzat — nire liburua eta gerra bakar bat dira;
Haren izpirituan nahasten gara ni eta nirea den guztia, borroka zure mendean baitago.
Gurpila bere ardatz-eremuan legez, halaxe ere liburu hau (beretzat ere arrotz);
Zure ideia-eremuan, dabil.

IRUDIAK

Igarle bat ezagutu nuen
munduko matiz eta objektuek harantzago zihona,
artearen eta zientziaren arloak harantzago, plazerraren, zentzumenen harantzago,
Irudiak aletzeko.

Jar itzazu zeure kantuetan, esan zuen,
Ez ordu ez egun enigmatikoak, ezta segmentuak ez parteak ere;
jar itzazu,
Jar itzazu ezer baino lehen, guztiontzako argi moduan eta guztion
hasierako kantu moduan,
Irudiak.

Beti hasiera zehazgabea,
Beti hazkundera, zirkuluaren kurbatura,
Beti gailurra eta elkargunea amaieran (berriro ere hasteko),
Irudiak! irudiak!

Aldatzen dena beti,
Aldatzen den, behera amiltzen den, berriro elkartzen
den materia beti,
Beti tailerrak, jainkoen lantegiak,
irudiak produzitzen beti.

Hona hemen zu edo ni;
Emakumea, gizona edo estatua; ezagunak eta ezezagunak.
Badirudi aberastasun sendoak eraikitzen ditugula, indarra, edertasuna... Baina
egiatan
Irudiak eraikitzen ditugu.

Desagertzen zihoan miraria,
Artista baten maitasunaren substantzia edo jakintsuaren ikerlanik luzeena,
Edo gerlariaren nekeena, martiriarena, heroiarena,
Bere irudia modelatzeko.

Giza-bizitza guztietatik
(behin elementuak pilatuz gero, erregistratuz gero —pentsamendurik, emoziorik,
ekintzarik baztertu gabe),
osotasuna, handia zein txikia, laburbilduta, areagotuta,
Beraren irudian.

Bultzada zahar-zaharra,
Antigoaleko pinakuluetan oinarrituta; hona hemen pinakulu berriagoak eta altuagoak,
Zientziak eta gaurkotasunak oraindik ere abiaraziak,
Bultzada zahar-zaharra, irudiz egina.

Gaurkoan den guztia,
Amerikako zurrumbilo trinko, emankor eta bizia,
Gaurko irudiak
askatasunean jartzen dituzten multzoa eta bereizkuntza.

Horixe iragandakoarekin,
Desagertutako herriekin, itsasoz harantzagoko monarka guztien erresumekin,
Konkistatzaile zaharrekin, gerla zaharrekin, itsas gizonen bidaia zaharrekin,
Irudiak batuz.

Dentsitateak, hazkundera, itxurak,
Mendi-geruzak, lurak, arkaiztegiak, zuhaitz erraldoiak,
den-denak jatorri ezezagunekoak, heriotza ezjakinekoak, bizi luzekoak,
irudi eternalak utzi zizkigutenak.

Buruberoa, grina handikoa, geldi-geldia,
Ikus daitekeena, ez ordea jaiotzaren umetokia,
Jaidura kosmikoak dituena lurraren irudi erraldoia
eratu, sortu eta berriro sortzeko.

Espazio osoa, denbora osoa
(Izarrak, puzten diren eguzkien asaldura erraldoiak, lurrera erorita, amaituta,
beren helburua betez, poliki-poliki zein abiadura handiz),
Irudiz beteta baino ez.

Konta ezin ahala izar isil,
Ibaiak isurtzen direneko ozeano infinituak,
Identitate askeak, zenbagaitzak, bananduak —begien antzera—,
Benetako errealitateak, irudiak.

Ez mundu hau hain zuzen,
Ez unibertso arrak ez unibertso emeak,
Helburua eta goi-asmoak, biziaren bizi iraungiezina beti,

Irudiak, irudiak.

Zure irakaspenez harantzago, maisu jakintsu hori,
Zure teleskopioaz edo espektroskopioaz harantzago —benetan zorrotza izanik ere—,
matematika guztiez harantzago,
Sendagilearen kirurgiaz eta anatomiaz harantzago, kimikoaz eta bere kimikaz
harantzago,
Entitateen entitateak, irudiak.

Zehazkabeak —nahiz tinkoak izan—,
betiko, betiko hortxe izango direnak, inoiz izan direnak eta direnak,
Orainalditik tiraka etorkizun infinitutik aurrerantz,
Irudiak, irudiak, irudiak.

Igarleak eta koblakariak
Are etapa handiagoetan irautea lortuko dutenak,
Modernotasunaren aurrean eurak izango dira bitartekari eta interpretari,
Demokraziaren aurrean,
Jainkoaren eta irudien aurrean.

Eta zuri, ene arima maite horri,
Alaitasunak, ariketa etengabeak, goren-hitzak,
Zure gogo bizia, azkenik asebeteta, zure kideak diren
irudiekin bat egiteko gogotsu.

Zure gorputz iraunkorra,
Zure gorputzaren barruan zelatan dirauen gorputza,
Zaren formaren helburu bakarra, nire benetako ni-a,
Irudi bat.

Zeureak diren olerkiak ere ez daude zure olerkietan,
Ez dago kantatzeko soinu berezirik, berez merezi duen bat ere,
Baina multzotik sortzen da, igotzen da eta... irudi biribil, armoniatsu bat inguratzen da
azkenik.

NIK HARENTZAT KANTATZEN DUT

Nik harentzat kantatzen dut,
Orainaldia eraikitzen dut iraganaldian
(Zuhaitz biziaren antzera bere erroen gainean nola, halaxe ere oraina iraganaren
gainean),
Denboran eta espazioan hura sartzera behartzen dut, eta berarengan lege hilezinak batu,
Berak, horien bidez, bere lege propioa sor dezan.

LIBURUA IRAKURRI NUENEAN

Liburua, biografia ospetsua, irakurri nuenean,
Hauxe al da, esan nion nire buruari, egileak gizon baten bizitza deitzen duena?
Eta norbaitek, hiltzen naizenean eta mundu honetatik joaten naizenean, hala idatziko al
du nire bizitza?

(Gizonen batek nire bizitzaz zerbait jakingo balu bezala —neronek ere sarritan pentsatzen baitut ezer gutxi, ia bat ere, ez dakidala nire benetako bizitzaz—; Intsinuazio bakanak, aztarna lainotsu eta zeharkako batzuk baino ez, hemen agerian jarri nahi nituzkeenak, neronen probetxurako.)

IKASKETAK HASTERAKOAN

Ikasketak hasterakoan, lehendabiziko urratsak hain atsegingarriak kausitu nituen, esaterako: kontzientziaren egintza bakarra, forma hauek, mugimenduaren gaitasuna, intsekturik edo animaliarik funtsik gabeena, zentzumenak, ikusmena, maitasuna... Diot, lehendabiziko urratsak halako zirrara eta plazerra eragin zizkidala, ezen, ozta-ozta aurreratu dut, ozta-ozta dakit aurreratu nahi dudana. Gelditu eta noraezean ibiltzea besterik ez dut nahi, eta denbora erabili estasiszko olerkiak atontzen.

HASBERRIAK

Noraino horniturik dauden lurrean behar duten guztiaz (tarteka-marteka aditzera ematen digutenez),
Zeinen bitxiak eta izugarriak gertatzen zaizkion lurrari,
Nolako eskarmentua beraientzat zein besteentzat
—zelako paradoxa ematen du horien garaiak,
Horien aurrean jendeak nola erreakzionatzen duen —ezagutzen ez badituzte ere—,
Denbora guztietan izan duten patuan nola dagoen halabeharrezko zerbait,
Nola garai guztiek aukeratzen dituzten gaizki gurtu- eta saritu-beharreko objektuak,
Eta erosketa beraren truke nola ordaindu behar den oraindik betiko prezioa ezinbestez.

ESTATUEI

Estatuei edota haietariko edozeinei, edo Estatuetakoa edozein hiriri. *Eutsi gogor, obeditu gutxi,*
Obedientzia saihestezina denean, morrontza erabatekoa denean,
Mundu honetako naziorik, estaturik edo hiririk batek ere ez dute inoiz beren askatasuna berreskuratuko.

BIDAIA ESTATUETAN ZEHAR

Estatuetan zehar ari gara bidaiatzen
(Munduan zehar beti, horrelako kantuek bultzatzen gaituztela,
Herri guztietarantz itsasoratzen gara, itsaso guztietarantz),
Guk, guztien ustekabeko dizipuluok, denen maisu eta denen maitale garenok,
Urtaroak ikusi ditugu igarotzen eta euren eskaintza luzatzen,
Eta esan dugu: zer dela-eta gizon eta emakume batek ez dute jokatzeko urtaroei bezala
eta haiek bezala euren eskaintza luzatzen?

Piska bat berandutzen gara hiri eta herri guztietan,
Kanada, Iparralde, Mississippi-ko ibar zabala eta Hegoaldeko Estatuak zeharkatzen
ditugu,
Estatuetariko bakoitzarekin parez-parez jokatzeko dugu,

Geure buruak aproban jartzen ditugu eta gizon eta emakume guztiak gonbidatzen ditugu guri entzutera.

Esaten dugu gure artean: Gogora ezazue, ez izan beldur, izan egiaziak, erakuts itzazue gorputza eta arima,

Itxaron une batez eta egin aurrera, izan oparoak, zuhurak, garbiak, magnetikoak,

Eta eskaintzen duzuen itzul bedi urtaroak itzultzen diren bezala,

Eta izan bedi haiek bezalaxe.

KANTALARI BATI

Tori, onar ezazu opari hau,

Nik heroia, hizlari edo jeneral batentzat gordetzen nuen,

Kausa ona, ideia handia, aurrerakuntza eta arrazaren askatasuna zerbitzatzen duen batentzat,

Tiranoen aurka amorrut aritzen den norbaitentzat, iraultzaile ausart batentzat;

Baina ikusten dudanez, gordetzen nuena zuk merezi duzu

beste edozeinen antzera.

NI, IKARAGAITZ

Ni, ikaragaitz, Izadiaren erdian atsedean hartuta,

Ororen jaun edo andrea, bizitasunik gabeko gauzen artean bertikala,

Haiek bezala eraginda, pasiboa, hartzailea, haiek bezain isila,

Nire lana, pobrezia, ospea, flakezia, krimenak nik uste baino garrantzi gutxiagokoak direla ikusita,

Mexiko-ko itsasoan, edo Mannahatta-n edo Tennessee-n, edo urrunago, iparraldean edo urrutiko lurretan,

Itsastarra edo menditarra, edo Estatu hauetan edozein bizimodutakoa, kostaldean, edo lakuetan, edo Kanadan,

Nik, edozein tokitan bizi izan arren, tinko iraun nahi dut ustekabeko kolpeen aurrean,

Aurre egin nahi diet gauari, ekaitzei, goseari, erridikulari, istripuei, umiliazioei,

zuhaitzek eta animaliek bezala.

JAKITURIA

Hara begira jartzen naizenean, ikusten dut emaitzek eta loriek atzera egiten dutela eta pilatu egiten direla, beharturik beti ere,

Hara orduak, hilabeteak, urteak — hara ogibideak, itunak, saltokiak, baita txikienak ere,

Hara eguneroko bizitza, hizkuntza, lanabesak, politika, pertsonak, jabegoak;

Hara gu ere bai, ni nire hostoekin eta nire kantuekin, fidaturik, miretsita.

Bere aita ikustera doan aita baten antzera, seme-alabak neurekin daramatzat.

ABIATZEN DEN ITSASONTZIA

Ikustazue mugarik gabeko itsasoa,

Itsasoko bularraren gainean itsasontzia badoa bela guztiak zabalik dituela, gabiakoak barne,

Banderatxoa goi-goian kulunkatzen da, handitasun handiz nabigatu ahala —behean,

olatuak norgehiagoka ari dira ontziarekin: aurea hartzen diote,

Mugimendu dirdaitsu eta apartsuekin inguratu egiten zaizkio.

AMERIKARI ENTZUTEN DIOT KANTUKA

Amerikari entzuten diot kantuka, kantu desberdinak entzuten ditut,
Artisauenak (alaiak eta kementsuak),
Arotzak bere kantua abesten du, oholak eta zutabeak neurtu ahala,
Igeltseroa kantuz ari da lanari ekin edota lana bertan behera uzterakoan,
Txalupariak bere txalupan abesten du bereak diren gauzei buruz, zamaketariak
boporearen bizkarrean abesten du,
Zapatariak bere bankuan eserita abesten du, sonbreru-egileak zutik abesten du,
Basolariaren kanta, nekazariarena, bere bidetik doanarena,
goizeko kanta, edo eguerdiko atsedendikoa, edo eguzkia jartzen denekoa,
Amaren kanta gozoa edo etxeko lanetan aritzen den ezkondu berriarena, edo josten eta
ikuzten jarduten duen neskatoarena,
Gizon eta emakume orok abesten dute beraiei bakarrik dagokienari buruz,
Egunak, egunari dagokionari buruz —gauetz, tximino sendo eta begikoen taldeak
beren kanta armoniatsu, adoretuak ahoa zabalduz abesten dituenak.

NONGO GOTORLEKUA DAGO SETIATUTA?

Nongo gotorlekua dago setiatuta eta alferrik saiatzen ari da setioari aurre egiten?
Bada gotorleku horretara komandante ardurati, nekaezin, hilezkor bat bidali dut,
Zalduneriak eta infanteriak lagunduta, eta baita artilleria-parkeak ere,
Eta artilleroak, kanoi bat sekula disparatu ez dutenak, direnetan hilgarrienak.

ORAINDIK ERE BAKARRARI KANTATZEN DIOT

Oraindik ere bakarrari kantatzen diot
(Bakarra, kontradikzioz osatatuta egon arren), Nazionaltasunaren aurrean kontsakratu
egiten dut,
Iraultza uzten dut harengan (o, matxinadarako eskubide amataezina! o, su aseezina,
behar-beharrezkoa!)

EZ ITXI NIRI ZUEN ATEAK

Ez itxi niri zuen ateak, biblioteka harroputz horiek,
Gainezka dauden zuen apalategietan faltatzen zena ekarri baitizuet,
Gutziz beharrezkoa zaizue-eta;
Gerratik atera naiz eta liburu bat idatzi dut,
Nire liburuaren hitzak ez dira ezer; beren asmoa, ordea, den-dena da,
Liburu isolatu bat, besteetatik bereizita, intelektuarekin loturarik gabea.
Bertan bizirik dauden esangurak direla-eta, zirrara eragingo dizueten orriak.

BIHARKO OLERKARIAK

Biharko olerkari, hizlari, kantagile, musikariok!
Egun honek ez nau justifikatuko ezta nire ordeztu erantzungo ere,
Baina zuek, belaunaldi berri batekook, garbiok, atletikook, kontinentalok, ezagutuak
belaunaldi guztiak baino garrantzitsuagoak,
Esna zaitezte, ni justifikatu behar nauzue-eta!

Etorkizunerako adierazgarriak diren hitz batzuk idatziz jartzea besterik ez dut egiten nik;
Une batez aurrera egitea baino ez dut egiten, eta segituan korrika eta presaka itzultzen naiz ilunbeetara.

Noraezean eta gelditu gabe dabilen gizona naiz, kasualitatez begirada bat jaurkitzen dizuet eta aurpegia ezkututzen dut segidan,
Esangura aztertu eta zehazteko lana zuen esku utziz,
Zuetaz onena espero dudalako.

ZURI

Ezezagun horrek, nire ondotik pasatzerakoan nirekin hitz egin nahi baduzu, zer dela-eta ez didazu hitz egingo, ba?
Eta zer dela-eta ez dizut nik hitz egingo?

ZU, IRAKURLE

Zu, irakurle, biziz eta harrotasunez beterik taupa egiten duena,
Zuretzat, bada, kantu hauek.

PAUMANOK-ETIK ABIATU NINTZENEAN

1

Sortzez Paumanok-ekoa naiz, arrain-itxurako herri batekoa, eta bertotik abiatu nintzenean,
Ondo egina eta ondo hezia ama ezin hobe bati esker,
Lur askotatik ibili eta gero, kale jendetsuak maite nituenez,
Mannahatta-ko herritarra (hura nire hiria baita), edo hegoaldeko sabanetan,
Edo kanpamenduan soldadu, edo nire motxila eta nire fusila garraiatzen, edo meatzari Kalifornian,
Edo landatarra, Dakotako basoetan dudan etxean, okela elikagaitzat eta iturriko ura edarizat ditudala,
Edo bakarlekuren batean isolatuta pentsatu eta gogoeta egiteko,
Jendetzen zaratatik urrun, artean ere eramana eta zorionsua,
Misurí jariotsuari —emaile fresko eta liberalari— begira, Niagara izugarriari begira,
Begira-begira lautadetan bazkatzen diren bufalo-taldeei, ilaje benetan gogorra duten zezen bulartsuei,
Lurrei, harkaitzei, maiatzeko lore ezagunei, izarrei, euriteei, elurrari,
eta harrিতa benetan sinsontearen soinuari eta gabiraiaren hegadari erreparatu eta gero,
Eta zedro zurietako birigarroari —parekorik ez duenari— entzun eta gero;
Bakarti, Mendebaldean kantatzen dut; Mundu Berri baten preludioari ekiten diot.

2

Garaipena, batasuna, fedea, identitatea, denbora,
Alderdi bananduezinak, aberastasunak, misterioa,
Betiereko aurrerakuntza, kosmosa eta gaur egungo albistek.

Hauxe da, beraz, bizitza,
Horra hor zer atera den azalera hainbeste agonia eta konbultsioen ondoren.

Zeinen bitxia! zeinen egiazkoa!
Azpian, jainkozko lurra; goian, eguzkia.

Ikustazue globoa biratzen,
Guraso-kontinenteak han, estu-estu taldekaturik,
Etorkizuneko kontinenteak iparrian eta hegoan, istmoa erdian dutela.

Ikus itzatzue ibiligabeko espazio ikaragarriak,
Ametsetan bezala aldatzen dira eta azkar-azkar bete,
Masa kontagaitzak isurtzen beraietan,
Hara lehendabiziko jendez, artez, erakunde ezagunez nola betetzen diren.

Ikus ezazue denboran zehar proiektatzen
niretzako entzuleria amaigabe bat.

Urrats sendo-erregularrez dabilta, gelditzen inoiz ez,
Gizon-maldrak, amerikarrak, ehun milioi,
Bere zeregina bete eta igarotzen den belaunaldia,
Bere zeregina bete eta igaro ere egiten den beste belaunaldi bat,

Aurpegiak atzera edo albo baterantz bueltaturik niri entzuteko,
Niri zuzendutakoa atzera begirako begiekin.

3

Amerikarrok! konkistatzaileok! desfile humanitariook!
Aurrera! mendeko desfileak! Askatasuna! masak!
Zuentzat guztiontzat kantu-egitarau bat.

Zelaietako kantak,
Mississippi ibai luzeko kantak, Mexiko-ko itsasoraino,
Ohio-ko, Indiana-ko, Iowa-ko, Wisconsin-eko eta Minnesota-ko kantak,
Kansas erditik ernatzen diren kantak, eta handik distantziakideak,
Suzko pultsazio nekagaitzekin abiatzen direnak, bizia nonahi hedatuz.

4

Amerika, har itzazu nire orriak eta erama itzazu hegoaldera, eta erama itzazu
iparraldera,
Presta iezaiezu ongietorria han eta hemen, zure alabak baitira,
Ingura itzazu mendebaldean eta ekialdean, beraiek ere zu inguratu nahi zaituztelako,
Eta zuek, aurrekariok, batu zaitezte maitasunez beraiekin, eurak zuekin maitasunez
batzen diren bezala.

Antigoaleko garaietan barrena sartu nintzen,
Maisu handien oinetara ikasten jarri nintzen,
O, duina banaiz, itzul bitez maisu handiak eta iker nazaten.

Estatu hauen izenean, mesprezatu behar al dut antigoalekoa,
Eurak antigoaleko seme-alabak badira, hori bera justifikatzen dutenak?

5

Olerkariok, fisolofook, apaizok,
Martiriok, artistok, hildako asmatzaileok, urrutiko gobernuok,
Hizkuntza-sortzaileok beste kostalde batzuetan,
Garai bateko nazio boteretsuok —gaur gutxira etorrita,
desagertuta edota lagata—,
Ez naiz aurreratzeraz ausartuko hona jaurki duzenaren meritua erabat ezagutu arte,
Aztertu egin dut eta miresgarria dela aitortu behar dut (badaramat alditxo bat horrekin),
Uste dut ezer ezin izan litekeela handiagoa izan, ezerk ezin izan lezakeela honek merezi
duena baino gehiago merezi,
Aldi batez behatzen dut; gero, hura baztertuz,
Hemen jartzen naiz zutik, nire lekuan, neronen egunarekin.

Hona hemen lur eme eta lur arra,
Hona hemen munduko ondare arra eta ondare emea, hona hemen elementuen sugarra,
Hona izpiritualtasun tradutzitzailea, erabat ezaguna dena,
Beti eskatzen dena, forma ikusgarrien amaiera,
Itxaronaldi saihestezin eta luzearen ondoren asebate eta aurrera egiten duena:

Bai, badator nire amorantea, arima.

6

Arima,

Beti eta sekulako —lur arre eta sendoak irauten duena baino luzeagoa— itsasoaren
itsasgora eta itsasbehera baino luzeagoa.

Poemak materiaz egingo ditut, poemarik izpiritualenak izango direlakoan nagoelako.

Eta poemak nire gorputzaz eta hilkortasunez egingo ditut,

Nire arimaren eta hilkortasunaren poemez hornituko naizela uste dudalako.

Kantu bat asmatuko dut Estatu hauentzat, Estatu bat beste Estatu baten mendean inoiz
—inolaz ere— amaitu ez dadin,

Eta kanta bat asmatuko dut Estatu guztien artean eta haietariko edozeinen artean bai
gauzez bai egunez elkarrekiko ulerkuntza nagusi dadin,

Eta kanta bat asmatuko dut Presidentearen belarrientzako, punta mehatxukorrak izango
dituzten armez josita,

Eta, armen atzean, pozik ez dauden ezin konta ahal aurpegi;

Eta guztiez osaturiko Bakarrarekin kanta bat asmatuko dut,

Bakarra, dirdiratsua eta betortzez ongi jantzita, zeinaren burua buru guztien gainean
egongo den,

Denak ulertzen dituen eta denen gainean dagoen Bakar erabakior eta martziala.

(Edonoren burua txit altu jarrita ere, gainerako buruen gainetik beti dagoen burua).

Gaur egungo herrialdeak bereiztuko ditut,

Globoko geografia osoaren arrastoari jarraituko diot eta adeitasun handiz egingo diot
agur hiri osoari, txikia nahiz handia izan,

Eta okupazioak, gero! Nire olerkietan jarriko dut heroikotasuna zuekin dela itsasoan
nahiz lehorrean,

Eta heroikotasun guztiak aditzera emango ditut Amerikako ikuspegitik.

Burkidetasunaren kanta abestuko dut,

Haiek denak batuko dituen gauza bakarra erakutsiko dut,

Gizon-maitasunaren ideala niri begira ezarriko dutelakoan nago,

Beraz, ni deuseztatzeko mehatxua egiten didan su suntsitzaileari nigandik sortzen utziko
diot.

Su ezkutu hau hain luzaro menperatu duen hura altxatuko dut,

Zeharo abandonatuta utziko dut,

Burkideen eta maitasunaren poema/ebangelioa idatziko dut,

Zeren, nor uler dezake maitasuna bere min eta alaitasun guztiarekin nik izan ezik?

Eta, nor izan daiteke burkideen olerkaria ni izan ezik?

7

Koalitateen, garaien, arrazen gizon sinesbera naiz,

Ni herriaren erditik aurreratzen naiz beraren izpirituarekin,

Horra hor zer kantatzen duen fede atzeraezinak.

Omnes! omnes! Nahi dutena ez bezate jakin beste batzuek,

Gaizkiaren poema ere asmatzen dut, zati hura ere omentzen dut,

Neroni ere gaizkia eta ongia naiz, eta baita nire herria ere —eta diot, egiatan gaizkirik ez dagoela.
(Edo, egotekotan, diot beste zernahi bezain garrantzitsua dela zuentzat, herriarentzat edo niretzat.)

Neuk ere, askori jarraituz eta askok jarraitua izanik, erlijio bat inauguratzen dut, borroka-eremura jaisteko.
(Zorionez, oihurik zorrotzenak bertan jaurkitzea da nire patua —garailearen oihurik zalapartatsuenak—,
Nork jakin? Nigandik sortu eta gainerakoen gainera eror litezke.)

Nor bera ez da existitzen berarentzat,
Diot, ezen, lurra eta firmamentoko izar guztiak erlijioagatik existitzen direla.
Diot, ezen, gizon bat ere ez dela oraindaino errukitsuegia izan,
Inork ez duela oraindikan behar legez jauretsi edo gur egin,
Inor ez dela pentsatzen hasi zeinen jainkozkoa den eta zeinen egiazkoa den etorkizuna.

Diot, ezen, Estatu hauen benetako eta betiereko handitasuna erlijioak izan behar duela,
Bestela, ez dago ez benetako ez betiereko handitasunik
(Ez ospe onik ez izen hori merezi duen bizitzarik, erlijiorik gabe; Ez herririk, ez gizonik ez emakumerik, erlijiorik gabe.)

8

Zertan ari zara, gazte?
Hainbeste maite, irrikatzen dituzu literatura, zientzia, artea, amodioak?
Errealitate nabarmenak, politika?
Zure handinahia edo negozioa, honako hori edozein delarik ere?
Ondo da —horien aurka ez dut hitzik esango, neu ere poeta naiz-eta.
Baina horra hor azkar baino azkarrago hondoa jo dutela, erlijioa-medio kontsumituta,
Zeren materia-mota guztiek ez baitute balio lurraren funtsezko bizitzaugarri bezalakoak,
berotzeko,
Hala nola aipatutakoek ez dute balio erlijioarentzat.

9

Zeren bila zabilta horren pentsakor eta isil?
Zer behar duzu, burkide?
Ene semea, uste al duzu maitasun-kontua dela?
Entzun, seme —entzun, Amerika, seme edo alaba horrek,
Gauza mingarria da gizon edo emakume bat gehiegi maitatzea eta, hala ere, horrek asebetetzen gaitu, zoragarria da.
Baina bada benetan handia den beste zerbait, orotasuna batera etorrarazten duena,
Bikain, materiaz harantzago, esku arinekin igaro eta denok zaintzen gaituena.

10

Jakin ezazue, ezen, soil-soilik erlijio handiago baten kimuak lurrean zehar sakabanatzeko,
Ondoko kankar intonatzen ditudala, zein bere espezierako.

Nire burkidea!

Nahi dut bi handitasun nirekin erdibana ditzazula, eta gu biok itxi gorantz igotzen den hirugarren bat, are distiratsuagoa,
Maitasunaren eta Demokraziaren handitasuna, eta Erljioaren handitasuna.

Neronen nahasketa, ikusterik ez dagoena eta ikustea badagoena,
Ibaiak isurtzen direneko ozeano misteriotsua,
Nire inguruan mugitu eta hegaldaka dabilen materiaren izpiritu igarlea.

Izaki bizidunak, airean gugandik hurbil dudarik gabe dauden identitate ezezagunak,
Eguneroko harreman iraunkorra, zeinetaz ezin naizen askatu.
Hauek aukeratzen ditut, hauek ezarri dizkidate intsinuazioen bitartez.

Haurtzarotik musu bat egunero eman didanak
Ez du sokaz lotu —ez nire inguruan bihurritu ere— harekin lotzen nauen guztia,
Zeruekiko eta mundu izpiritualarekiko menpekotasunik ez dudanez,
Nigatik egin duten guztiaren ondoren, gaiak iradokitzen zizkidatelarik.

O, zer-nolako gaiak – berdintasunak! O batezbesteko dibinoa!
Eguzki azpiko txorrotxioak, orain bezala igarrita, edo eguerdian, edo eguzki-sartzean,
Jada hona iristen diren garaietan zehar jariotzen diren doinuak,
Horien akorde konposatuei zaletasun handia hartzen diet, eta areagotzearekin batera
helarazten ditut alaitasun handiz.

11

Nire goizeko ibilalditxoa Alabamatik egiten ari nintzela,
Ikusi nuen, sasi artetikan, sinsontearen emeak arrautzak berotzen zituen kabia.

Arra ere ikusi nuen,
hari entzuteko gelditu nintzen, oso hurbil, eztarria airez bete eta alaitasunez kantuz ari
zelarik.

Eta, entzuten nion bitartean, bururatu zitzaidan ez zuela bakar-bakarrik kantatzen han
bertan zegoenarengatik,
Ezta bizilagunagatik ere, ez eta ere beraren buruagatik, eta oihartzunak ez zuela den-
dena itzultzen,
Baizik sutileziaz, isilka-misilka, urrutitik
Bidalitako agindua eta dohain sekretua zela, jaioberriei zuzenduta.

12

Demokrazia! Zure ondoan eztarri bat puzten da eta alaitasunez aritzen da kantuan.
“*Ma femme!*” Gure seme-alabentzat eta urrutiko seme-alabentzat,
Sorlekua bertan dutenentzat eta egunen batean etorriko direnentzat.
Ni, garaile, horientzat prestatzen naiz eta lurrean sekula entzun diren kantarik
kementsuen eta harroenak abestuko ditut.

Grinazko kantak konposatuko ditut haiei atsegin emateko,

Eta baita zuen kantak ere —urratzaile debekatuak direnak—, ahaide-begiekin miatzen zaituztedalako, eta nirekin eramaten zaituztedalako beste edonor bazinaten bezala.

Oparotasunen benetako poema konposatuko dut,
Atxikitzen den eta aurrera egiten duen (eta heriotzak baztertzen ez duen) guztia gorputz-izpirituarentzat irabazteko asmoz;
Egoismoa zabaltasunez isuriko dut eta honek den-dena nola goresten duen erakutsiko dut, eta nortasunaren koblakaria izango naiz,
Eta erakutsiko dut, arrari eta emeari dagokienez, biak ez direla bestearen ordaina baizik,
Eta organuak eta sexu-ekintzak! Bil zaitezte nigan, zeren erabaki baitut ahots garbiz eta ausartez zuen berri ematea, goi-mailakoak zaretela frogatzeko,
Eta orainaldian akatsik ez dagoela erakutsiko dut, eta ez dela posible etorkizunean ere egotea,
Eta erakutsiko dut, ezen, gizon bati gerta dakiokkeen edozein gauza ondorio eder bilaka daitekeela,
Eta erakutsiko dut ezer ederragorik ezin daitekeela gerta, heriotza baino,
Eta hari bat sartuko dut nire olerkietan zehar, denbora eta gertakariak trinkoak direla frogatzeko,
Eta unibertsoko gauza guztiak mirari perfektu eta arakaezinak direla.

Zatien aipua egiten duen olerkirik ez dut egingo,
Baina multzoa aipatzen duten poemak, kantak, pentsamenduak egingo ditut,
Eta ez dut egun bati buruz abestuko, baizik egun guztiei buruz,
Eta ez dut olerkirik egingo, ezta olerki-zatirik txikiena ere, arima argi eta garbi aipatzen ez duenik,
Zeren-eta, unibertsoko objektuei begiratu ondoren, ikusten baitut ez dagoela bat ere, ezta horietako zati bakarra ere, arima argi eta garbi aipatzen ez duenik.

13

Norbaitek nahi al zuen arima ikusi?

Ikus itzazu zure forma eta aurpegia, pertsonak, substantziak, animaliak, zuhaitzak, isurtzen diren ibaiak, arroak eta hareatzak.

Denek euren baitan daramatzate alaitasun izpiritualak, geroago desegin egiten direnak;
Nola ote da posible benetako gorputza hil eta lurperatua izatea?

Zure benetako gorputza, edozein gizonen eta edozein emakumeren gorputza, limurtu egingo da, zatirik zati, gorpu-garbitzaileen eskuetatik eta bere berezko esferara egingo du ihes,
Jaio zen momentutik hil zen momentura arte harengan pilatutako guztia berekin eramanez.

Tipografoak paratutako tipoek ez dute beren inprimaketa itzultzen,
Esangura da garrantzitsuena,
Hala nola gizon baten substantzia eta bizitza —edo emakume baten substantzia eta bizitza— ez baitira gorputzera eta arimara itzultzen,
Indiferenteak bai heriotza baino lehen bai heriotzaren ondoren.

Horra, gorputza esangura da, garrantzitsuena da eta bere baitan atxilotzen ditu; eta arima da eta bere baitan atxilotzen du;
Nornahi zarelarik ere, zein harroa eta jainkozkoa den zure gorputza, eta zurea den edozein alderdi!

14

Nornahi zarelarik ere, iragarpen amaigabeak zuretzat!

Herrialdeetako alaba hori, zure olerkariaren zain egon al zara?
Mintzo ederreko eta esku adierazgarriko olerkari baten zain egon al zara?
Estatuetako gizonari eta Estatuetako emeari,
Bozkariozko hitzak, Demokraziaren herrialdeetatiko hitzak.

Kateaturiko lurrak, lur emankorrak!
Huilaren eta burdinaren lurraldea! urrearen lurraldea! kotoiaren, azukrearen, arrozaren lurraldea!
Gariaren, behikiaren, txerriaren lurraldea! artilearen eta kalamuaren lurraldea!
sagarraren eta mahatsaren lurraldea!
Artzain-lautaden lurraldea, munduko bazkalekuena! haize gozoetako goi-lautada amaitezinen lurraldea!
Artaldearen, baratzearen, pezozko etxe harmoniatsuaren lurraldea!
Iparrekialdean Kolunbiak eta hegoekialdean Koloradok zigi-zaga zeharkatzen duten lurraldea!
Ekialdeko Chesapeake-ko lurraldea! Delaware-ko lurraldea!
Ontario, Erie, Huron, Michigan-eko lurraldea!
Hamairu Kolonia Primitiboen lurraldea! Massachusetts-en lurraldea! Vermont-en eta Connecticut-en lurraldea!
Ozeanoko kostaldeen lurraldea! mendizerren eta tontorren lurraldea!
Txalupalarien eta itsas gizonen lurraldea! arrantzaleen lurraldea!
Lurralde arakaezinak! nahaspilatuak! grinatsuak!
Bata bestearen ondoan! anaia zaharra eta anaia txikia! atal hezurtsuak dituen!
Emakume handien lurraldea! emakumezkoarena! ahizpa trebeak eta ahizpa trebatugabeak!
Hats gogorreko lurraldea! Artikoak indartuta! Mexiko-ko haize gozoek freskatuta!
anitza! trinkoa!
Pennsylvania-koa! Virginia-koa! Carolina bizkietakoa!
O, denak eta zuetako bakoitza, nire kutunak! nire nazio ausartak! O, nik behintzat zuek denak hartzen zaituzte nire magalean maitasun biribilaz!
Ezin nauzue bertan lagatu! zuetako inork ezin nau bestek baino lehen lagatu!
O heriotza! O, hala ere, zuentzat ere ikusezina naiz nire maitasun basatiaz,
Ingalaterra Berrian zehar nabil adiskide gisa, bidaiari gisa,
Ura jotzen dut, oin biluziekin, Paumanok-eko hondartzetan,
Zelaiak zeharkatzen ditut, Chicago-n berriz ere igarotzen dut bolada bat, hiri guztietan bizi naiz,
Ikuskizunak, jaiotzak, aurrerakuntzak, eraikuntzak, arteak behatzen ditut,
Gizon eta emakume hizlariei entzuten diet jendaurreko aretoetan,
Estatuetan eta berauetan zehar nire bizitzan bezala, gizon eta emakume oro, nire auzokideak,
Luisiana-koa, Georgia-koa, haiek nigandik ni beraiengandik bezain hurbil,

Mississippi-koa eta Arkansas-koa, oraindik ere nirekin, eta ni oraindik ere haietariko edozeinekin,
Oraindik ere lautadetan ibai nagusiaz sartalderantz, oraindik ere pezozko nire etxean,
Oraindik ere mendebaldera itzultzen naiz, oraindik ere Kostaldeko Estatuan edo Maryland-en,
Oraindik ere kanadiarra naizelarik, hain gogoko ditudan neguari, elurrari eta izotzari aurre egiten diet ausart,
Oraindik ere, Maine-ko edo New Hampshire-ko edo Narragansett Badia Estatu edo New York Estatu seme naizelarik,
Oraindik ere beste kosta batzuetarantz abiatzen naiz horiek denak elkarrekin lotzeko, eta hala ere, ongi etorria ematen diet anai-arreba guztiei,
Horregatik Orri hauek eskaintzen dizkiet anaia-arreba berriei, lehenengoekin elkartzen diren momentutik;
Anaia-arreben artean suertatu naiz ni, euren kidea eta parekoa izateko, eta zugana hurbiltzen naiz orain;
Ekitaldiak, ikuskizunak ezartzen dizkizut, nirekin.

15

Nirekin ziurtasun handiz; baina azkar zaitez, ibil zaitez.

Jar ezazu zeure bizitza, elkar zaitez nirekin.
(Baliteke hainbat alditan ni konbentzitu beharra, naizena zure esku jarri baino lehen; baina, nori axola dio?
Izadiari ez al zaio behin eta berriz konbentzitu behar?)
Ez naiz milika ez gozoa ez xeratsua:
Bizarduna, eguzkiak errea, ile urdinekoa, arranditsua naiz; iritsi naiz borrokatzeko, Unibertsoaren sari osoak jaso eta aldi berean horiei aurre egiteko.
Horregatik, halakoak irabazi nahi dituen edonor onartzen dut.

16

Une batez bidean gelditzen naiz,
Hemen nago zuretzat! eta hemen nago Amerikarentzat!
Oraindik ere oraingokoa altxatzen dut; Estatu hauentzat oraindik ere igartzen dut etorkizun bikain eta zoragarria;
Eta iraganaldirako, azal gorriko aborigenei buruz aireak atxikitzen duena aldarrikatzen dut.

Azal gorriko aborigenak,
Zizpuru naturalak uzten dituztenak: euri- eta haize-hotsak, hegazti eta animalia antzeko soinuak basoetan, izen-itxurapean txistuka helduta,
Okonee, Koosa, Ottawa, Monongahela, Sauk, Natchez, Chattahoochee, Kaqueta, Oronoco,
Wabash, Miami, Saginaw, Chippewa, Oshkosh, Walla-Walla.
Estatuei utzi ondoren urtzen eta urruntzen diren izenak, ura eta lurra izenez bustita utziz.

17

Zabaldu egiten dira azkar, gaurtik aurrera,

Elementuak, belaunaldiak, moldapenak, zurrunbilotsuak eta ausartak,
Jatorrizko mundu batean berriro ere, etengabe adarkatzen diren loriazko perspektibak,
Aurrekoak menperatzen dituen arraza berria, eta handiagoa, borroka berriekin,
Politikarekin, literatura eta erlijio berriekin, asmakizun eta arte berriekin,
Horientzat igartzen du nire ahotsak —ez dut lorik gehiago egingo, eta zutik jarriko naiz.
Nire baitan baketsu iraun duzuen ozeanoak! nola sentitzen zaituztedan, ikergaitz,
inarrosita, ikusi gabeko enbatak eta euriteak prestatzen.

18

Ikus ezazue, baporeek nire olerkiak zeharkatzen dituzte,
Ikus ezazue, nire olerkietan, iritsi eta bertan lehorreratutako etorkinak,
Ikus ezazu, atzealdean, etxola, bide-zidorra, ehiztariaren aterpea, txalupa, arto-hostoa,
ondasuna, hesi traketsa, baserria,
Ikus ezazue, alde batean Mendebaleko Itsasoa eta, beste alde batean, Ekialdeko Itsasoa:
nire olerkietan zehar aurrera egiten dute eta beren hondartzetan baileuden atzera egiten
berriz,
Ikus ezazue, bazkalekuak eta basoak nire olerkietan —ikus ezazue, baso-animaliak eta
etxabereak— ikus ezazue, Kaw leinuaz harantzago, bufalo-talde zenbakaitzak belar
motz eta kizkurtuaren erdian bazkatzen,
Ikus ezazue, nire olerkietan, hiri sendo eta zabalak herrialdearen erdian, zolaturiko
kaleak, burdinazko eta harrizko eraikuntzekin, ibilgailuen joan-etorria, merkataritza,
Ikus ezazue, zilindro anitzeko lurrin-prentsa —ikus ezazue kontinentean zehar hedatzen
den telegrafo elektrikoa,
Ikus ezazue, Atlantikoko hondoetan zehar pultsazio amerikarrak iristen dira Europara,
eta pultsazio europarrak puntualtasun handiz itzultzen,
Ikus ezazue, ufaka abiatzen den lokomotora kementsu eta arina, lurrinezko txirrinari
eraginez,
Ikus ezazue, lurra lantzen duten nekazariak —ikus ezazue, meatzetan azterka ari diren
meatzariak —ikus ezazue, lantegi zenbatezinak.
Ikus ezazue, eskulangileak lanean beren erremintekin eserleketan —ikus ezazue nola
ateratzen diren, horien artetik, epaileak, filosofoak, presidenteak, laneko jantziak
soinean daramatzatela,
Ikus nazazue saltokietan eta Estatueta alorretan alferkerian, gaez nahiz egunez estu
helduta edozeri,
Entzun itzazue han nire kanten oihartzun zaratsatuak —irakur itzazue azkenik heldu
diren intsinuazioak.

19

O, burkide mamitsua! O, zu eta biok azkenik, eta gu denok bakarka.
O, hitz bat gure bide-zidorra garbitzeko, eta aurrera egin, etengabe aurrera egin!
O, estasizkoa eta frogaezina zaren hori! O, musika oldarkorra!
O, ni orain garailea naiz —eta zu ere garailea izango zara!
O, eskua eskuan —o, plazer osasungarria —o, desiratzen eta maitatzen duen beste bat
gehiago!
O, tinko helduta azkar zaitetz —azkar zaitetz nirekin aurrerantz beti!

